

## **ERABAKIA, 2022ko APIRILAREN 6koa, (SGIKEReko GOI MAILAKO TEKNIKARIAK (PROTEOMIKA) LAN POLTSA ZABALTZEKO PROBAK EPAITU BEHAR DITUEN EPAIMAHAIARENA, HAUTESPEN PROZESUAREN HURRENKERA PROPOSAMENA EGITEKO.**

Deialdiaren seigarren eta zazpigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2021eko maiatzaren 21eko Erabakia), "SGIKEReko Goi Mailako Teknikariak (Proteomika)" lan poltsa zabaltzeko hautaketa prozesurako epaimahaiak jakinarazten du:

**LEHENENGOA.-** Hautaketa prozesuaren fase guztiak amaiturik, Epaimahaiak behin betiko balorazioa eman du.

**BIGARRENA.-** 6.6 oinarriak dio ezen lan-poltsan sartuko diren pertsonen hurrenkera erabakiko da puntuazio totalaren arabera. Bakoitzaren puntuazio totala kalkulatu da honako hauek batuz: merezimenduen puntuazioa, euskarari dagokion puntuazioa eta oposizio faseko probaren puntuazioa. Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

1. Irizpidea: oposizio fasean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
2. Irizpidea : Merezimenduen lehiaketan puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
3. Irizpidea: Merezimenduen lehiaketako atal bakoitzean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna, oinarri hauetan atalok agertzen diren hurrenkeran.
4. Irizpidea: Emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste izangai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenak, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea

Irizpide hauek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, zozketa egingo da, Langileak Estatuko Administrazioaren Zerbitzura Sartzeko Arautegi Orokorrean esaten den legez. Indarrean, deialdia argitaratzen den egunean, dagoena.

**HIRUGARRENA.-** Zazpigarren oinarriarekin bat etorrira, hautaketa prozesua behin amaiturik, epaimahaiak prozesua gainditu duten lehiakideak ordenatuko ditu, bakoitzak guztira lortutako puntuazioaren arabera, bakoitzak atal bakoitzean zenbat puntu atera dituen ere zerrendan zehaztuz. Gero UPV/EHUko gerenteari emango dio zerrenda, prozesua ebazten duen behin betiko erabakia eman dezan. Epaimahaiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsioa aurkez dakioko UPV/EHUko gerenteari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Honi lotu zaio epaimahaiak egindako hurrenkera proposamena (I. eranskina).  
Proposamena Lan-eskaintzen atarian ikus daiteke.

Leioan, 2022ko apirilaren 6an

Epaimahaiko idazkaria